

Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal

AMARNATH YATRA:

KAXMIRREN ERROMES SHIVAREN BIDEARI JARRAIKIZ

■ *Sheshnag kanpamendua Vishnu, Shiva eta Brahma menditontorren zaintzapean*



■ *Shivaren jarraitzaileak honen modura jantzi eta bizi izaten saiatzen dira: ile luze eta korapilotsua, ia biluzik, eta tridentea eskuan, adibidez*

Gaur egun oraindik, Himalayaren inguruko herrialdeetako biztanleek bertan jainkoak bizi direla uste dute. Lekurik sakratuena Tibeteko Kailash mendia da. Bertan bizi dira

LANGAR artean agertzen eta gordetzen diren Himalayako mendi erraldoiek betidanik sortu izan dute ikusmira gizakiarengan. Irudimenerako gaitasun bereziari esker, mendi hauen inguruan kondaira misterioitsu ugari sortu izan ditu gizakiak, denborarekin sinismen bihurtu diren arte.

jainisten eta Bon erlijioaren jarraitzaileen jainkoak, baita budisten Buddha Demchok santua ere. Hinduistentzat Shivaren bizitoki nagusi eta iraunkorra den arren, leku askotan ager daiteke itxura desberdinarekin, adibidez, Kaxmirko Amarnath zein Nepalgo Gupteshwor Mahadev haitzuloetan hiru metroko ur-jauzi izoztu gisa, edota Machapuchare mendi tontor gisa. Hinduisten Ama Ganga (Ganges ibaia) jainkoa ere Himalayan sortzen da, Gangotri glaziarrean hain zuzen, eta honen ondoan dagoen Shivling mendia Shiva jainkoaren emankortasunaren adierazle da. Kailash mendiaren ondoko Manasarovar aintzira ere sakratua da budistentzat nahiz hinduistentzat. Ez jainkoek bakarrik, ermitau hinduista askok ere bizitzaren zati bat Himalayako aintzira eta glaziarren ondoan bizi dute meditazioa eginez, espirituaren jakituria osoa ikasi eta gorputzarekiko loturak gainditzeko asmoz, jainkoak balira bezala. Gainontzeko fededunak urtero leku sakratu hauetara datoz beren jainkoekiko loturak indartu eta bizitzari aurre egiteko barne energia berritzera.

Himalaya ezagutzeko modu eta bide asko daude. Oraingo honetan guk aukeratu dugun bidea, bertako gizon eta emakumeen sinismenek eraikitako bidea da: gune sakratuetara daraman erromesbidea. Bide honi sanskritoan *yatra* deritzo eta erromesak egiten duenari *yatri*.

Himalayako *yatrarik* entzutetsuena Ganges ibaiaren iturburura doana da. Gure oporraldi garaia abuztua izanik, aukera hori laster baztertu genuen, garai horretan montzoi eguraldi fenomenoagatik, ia Himalaya osoa euri eta laino trinkoen eraginpean aurkitzen baita. Montzoi sasoiko eurietatik salbu dauden bakarrak, Himalayaren ipar mendebaldeko Kaxmir eta Ladakheko lurraldeak dira. Horra hor non aurkitzen dugun hinduisten Himalayako erromesaldirik garrantzitsuenetakoa: Amarnatheko *yatra*.

Amarnath Kaxmir lurraldean 4000 metrotara dagoen haitzulo erraldoia da. Barruan izotz estalagmita bat sortzen da, eta berau gurtzera 400000 bat *yatri* hinduista joaten dira urtero. Hauen ustetan, zakil itxura duen izotz estalagmita



Mila Gallastegi Gerrikabeitia (1972) eta **Asier Aranzabal Maiztegi** (1971) Eibarren jaio eta hazi arren, gaur egun Amorebieta-Etxanon bizi dira. Gaztetatik Euskal Herriko eta

Pirinioetako mendietan ibiltzeko eta naturari argazkiak ateratzeko zaletasuna ere izan dute. Urte batzuetatik hona, zaletasun hauei lotuta, munduan zehar zenbait bidaia egin dituzte, natura eta kultura elkartzeko gizakiok ezagutzen dugun modurik sinpleena medio, hots, OINEZ, edota bertakoen berezko garraibideak erabiliz: kanoan, zaldiz... Honela, Nepalen, Perun, Marokon, Etiopian, Mongolian, Indonesian, Aljeriako eta Tunisiako Saharan, Iranen, Malin, Groelandian, eta Kaxmir eta Ladakhen izan dira besteak beste. Bidaiazteko filosofia honi esker, paisaia ikusgarriak eta bertako biztanleak nahiz beraien kultura hurbilgotik ezagutu ahal izan dute, eta bertan jasotako irudi eta esperientziekin ikus-entzunezkoak eskeintzen dituzte. mila_asier@yahoo.es

RESUMEN

EL Himalaya es el macizo montañoso de Asia que reúne las cimas más elevadas del planeta. Para quienes vivimos en los países industrializados de Occidente, suele ser destino para la práctica de actividades y deportes de aventura y riesgo. Sin embargo, para los habitantes de los valles del Himalaya es la morada de los dioses. Y a fin de reafirmar sus creencias en estos dioses, cada año millares de fieles vienen a realizar su peregrinación o *yatra* por tortuosas sendas entre montañas. De la mano de Mila y Asier, venimos a conocer con este nuevo recorrido, no ya el habitual Himalaya repleto de cumbres amenazantes y sobrecogedoras, sino el escenario en que los creyentes hinduistas anualmente siguen la senda del *yatra* hasta la cueva sagrada de Amarnath por las tierras de Cachemira (Kaxmir).



■ Nekeak eraginda, Shaduek ere kaxmirtarren zaldien laguntza behar dute, haitzulotik bueltan




■ Shivaren ongi etorria Amarnatheko yatrara

honek Shiva jainkoak har dezakeen itxuretako bat da eta unibertsoaren emankortasuna eta izaera maskulinoa adierazten ditu. Kondaira batek dioenez, Shiva jainkoak hemen azaldu zion bere emaztea den Parvati jainkosari hilezkortasunaren sekretua.

Kaxmir lurraldera New Delhitik Srinagar hirirako hegaldian heldu gara. Srinagar Indiaren agindupean dagoen Kaxmir lurraldearen hiriburua da. Pir Panjal eta Himalayako mendilerroez inguratuta 1700 metrotara, 130 km luze eta 35 km zabal den ibar emankorrean kokatzen da. Ibarraren edertasuna dela eta, Indiako inperioan agindu zuten enperadore mogolen eta britainiar kolonialisten udalekua ere izan zen. Guk geuk ere Kaxmir ibarra ezagutzen egun batzuk eman ditugu, Amarnatheko *yatrari* ekin aurretik.

Amarnatheko *yatra* 2130 metrotara, Lidder errekaen ibarreko Pahalgam herrian hasten da. Srinagar hiritik mendebalderantz 95 kmko bidaia egin behar da, Kaxmir ibarreko arroz eta garagar soro zabalak atzean utzi eta Himalayako mendiak aurrez aurre aurkitu arte. Herria 3000 eta 4000 metroko mendiak inguratzen dute. Baina ez dira el tontorrak, pinu basoek estalitako mendiak baizik, paisaiak Suitzako Alpeen antza duelarik. Airearen garbia eta freskoa da. 1989ko gerraren aurretik, mendizale eta eskizale ugari etortzen ziren hona, Chamonix balitz bezala. Ibarraren edertasunak eta mendi eta eski ibilaldiak egiteko aukerak herri turistiko bihurtu zuten artzain herri hau. Tamalez, talde independentistek guda armatuari ekin ziotenetik, turismoak behera egin zuen. Gaur egun ekain eta abuztu artean datozen *yatriei* esker bizi da turismoaren ekonomia, gainontzekoan ia hutsik dagoelarik. Horregatik, hainbat ostalari hurbildu zaigu kotxetik jaitsi bezain azkar, logelak eta gidari zerbitzua eskainiz. Ostalarien arteko konpetentzia ikaragarria da, gure aurrean ia mutur joka hasi dira eta.





■ Pahalgam ibarrera bidean

Autobus geltokiaren bueltan dagoen turismo bulegoan *yatrari* buruzko informazioa eskatu dugu: ibilbidearen mapa, eguneguneko distantziak, atsedenekuak eta kanpalekuak. Lehendabiziko etapa, Pahalgametik Chandanwari herririkara doan bidea, autoentzat asfaltatu berria dela esan digute eta ondorioz, gaur egun inork ez duela oinez egiten. Horrek ibilaldiari egun bat kentzen diola esan nahi du. Gure ostalariari bestelako mendi biderik ote dagoen galdetu diogu. Honek, aldiz, bestelako proposamena egin digu, komertziala noski: Lehendabiziko egunean, Pahalgametik mendi ingurua gidari baten laguntzaz ezagutu. Bigarren egunerako Chandanwarira hurbiltzeko kotxea ere eskaini digu, baita *yatrako* egunetan motxilak eramateko zaldiak ere. Gure asmoa bestelakoa dela errepikatu arren, honek bereari eutsi dio amore eman dugun arte. Negozioa bere gunera eramaten bikainak dira kaxmirtar hauek.

1. eguna: Baisarn eta Dhabyan

GOIZALDEKO giro eguzkitsuarekin ingurunea ezagutzeko gogoz eta energiak jaiki gara.

Mohamed, gure gaurko gidaria, esandako orduan etorri zaigu bila eta zuzenean abiatu gara mendian gora, pinuen basorantz. Hasieran aldapa gogorra da, zuhaitz batetik bestera belar berde argiaren gainean. Ez dugu bidezidor zehatzik jarraitzen, abereek egindako bidexka zatiak baizik. Ordu erdiko kontuan pinu erraldioen gerizpean gabiltza. Bidezidor garbiago bati jarraika, artzainen kanpaleku batekin topo egin dugu. Egur enborrekin eta plastiko oihalaz jaso dituzte beren kanpadendak, behialako gure kanadar kanpadenden modura. Gizon eta emakume taldea menditik behera dator, buru gainean adarrez betetako zaku astunak dakartzatela. Gaueko hotzari aurre egiteko erregaia egunero bildu beharra dago hemen. Pisuarengatik sufrimendu arrastorik erakutsi gabe irribarre batez agurtzen gaituzte. Gujjar etniako artzain nomadak dira, ijitoen familiakoak alegia. Urtearen garairik hotzenean Rajastango eskualdean bizi dira. Ondoren, eguraldia berotzen hasten denean,

Kaxmirko mendietako larre oparagoetara datoz. Kaxmirko ahuntzen eta ardien ilea munduan ekoizten den onenetakoa da, kalitate eta edertasun handiko oihalak (*pashmina*) eta alfonbrak landu ahal izateko.

Lasai goaz, prisarik gabe, bidean aurkitzen dugun guztiaz gozatuz. Bi orduren buruan, Baisarn izeneko gunera heldu gara. Baso artean ibiltzetik sekulako hedadura duen belardira irten gara. Belarraren kolorea bizia da, inguratzen duen pinuen berde ilunarekin kontrastea egiten duena. Lasaitasun sentipena areagotzen digu leku eder honek. Turismo bulegoan esan ziguten arabera, Pahalgam herritik bost bat kilometrotara eta 2450 metroara aurkitzen gara. Baina ez gaude bakarrik. Artzain taldeak eta beren ardiak sakabanatuta daude han eta hemen, kaxmirtarrak ere lasai, belar gainean eserita, nora ezera begira. Batzuek, aldiz, zaldien bekorotzak jasotzen dihardute zakua eskuan.

Mendebalderantz aldapan gora baso artean jarraituz gero, 7-10 kilometrotara eta 3353 metroko garaieran Tulyan aintzira dagoela dakigu, baina gaurko lasaitasunarekin berandutu egingo zaigula uste dugu. Hortaz, Gujjar artzainekin argazki batzuk atera ondoren, belardiaren ekialdean hegoalderantz hartu dugu, pinudian barrena. Bidean zuhaitz enborrez jasotako etxetxoak lorez erabat inguratuta aurkitu ditugu. Familia batzuk luzaroago bizi omen dira altitude hauetan eta, noski, hotzari aurre egiteko oihalezko kanpadenda baino gehixeago behar dute.

Baisarn belarditik bi kilometro eta erdira Dhabyan izeneko belardira heldu gara. Hemendik Pahalgam ibarraren hegoaldeko ikuspegia daukagu: kaxmirtar etxetako txapazko teilatuen distira, herrixkak Lidder ibaiaren aldamenean nola antolatzen diren, baita hauen gainean altxatzen diren mendi garaiak ere, oso aldapatsuak eta pinu basoen esmeralda koloreaz erabat estaliak. Ikusgarria!



■ Amarnatheko kondairaren elementuak: Shiva, estalagmita, usoak, tridentea



■ Gujjar artzaina

Aldapan behera ekialdera jo dugu, erreka batekin topo egin arte eta honi jarraikiz Pahalgamgo hegoaldeko auzoraino jaitsi gara. Bidean goraka eta beheraka datozen hainbat artzain agurtu dugu. Etxe artean auzoa zeharkatu eta beste hiru bat kilometroko ibilaldia egin dugu ostaturaino asfaltatutako bidean. Eguerdiko ordu biak dira eta ibilaldi lasai eta polit honen ondoren gure ostalariak prestatu digun bazkaria dastatzeko irrikan gaude. Kaxmirtar janaria zapoetsua da, espezia askoduna baina ez oso pikantea. Bazkari gehienetan oiloa edo arkumea jartzen dira, modu desberdinetan prestatuta: arbiekin, espinakekin edota loto lorearen sustraiekin. Bukatzeko te berdea, Asia erdialdeko herrietan bezala.

Arratsean, ibar osoa behelainoak estalita, herria hobeto ezagutu dugu. Egurrez jasotako mezkitaeren teilatuaren kolore berdeak eta ilargierdi sinboloa duten kupula txikiak erraz bereizten dira gainontzeko etxeetatik. Lidder ibaiaren mendebaldeko bazterrean XI. mendeko Mamleshwar tenplua bisitatu dugu.

2. eguna: Pahalgam - Chandanwari - Pissu - Sheshnag

Y ATRA hasiko dugun egun honetan ere goiz jaiki gara, egun luzea baitugu aurretik. Ez dugu lo asko egin, mezkitaeren bozgorailutik orduak eta orduak eman baitituzte, otoitzak herri eta haran osora zabaltzen. Lehendabizi oheratzeko orduan, berandu arte gainera, eta ondoren goizaldean. Kotxe gidaria agindutako orduan etorri da. Gaur ere honek harritu egin gaitu, bidaiatzen ibili garen herrialde gehienetan, puntualtasuna ez baita ohikoa. Lidder ibaiaren aldamenetik ibar estuan zehar, 16 kmko bidea egin dugu autoz Chandanwari (2896 m) herrixkaraino. Alde batera eta bestera, pinu basoak zabaltzen dira ibai ondotik zerurantz, paisaiaren berdeak oraindik ere liluratzen gaituelarik. Mendi magala gainditzeko errepidea sugea bezala bihurritzen da, altuera gaintu ahala, errepidearen eskuinean dugun amildegia gero eta handiagoa izanik. Laster lilura ikara bihurtzen da, ez amildegia, gure kotxe gidariak daraman abiaduragatik baizik. Gure aurretik doazen autoak ere azkarregi doaz. Bidea horren estua izanik, kotxe gidari zoro hauen artean oinez ibiltzea ere oso arrisksua dela uste dugu.

Chandanwari herrixkan autotik jaitsi eta lehendabiziko kontrol militarra jasan dugu. Banan banan *yatri* guztiei poltsak, zakuak eta motxilak goitik behera arakutzen dizkiete, baita guri ere, bereziki. Kontrolaren beste aldean kaxmirtar artzain ugari daude, *yatriak* zaldi gainean eramateko eskaintza egiten. *Ghora*



■ Kaxmirtar artzainak

ghora ('zaldiak, zaldiak') oihukatzen dute etengabe. Guk bi zaldi alokatu ditugu zama eramateko, gure motxilak handi samarrak baitira, ibilaldi hau mendebaldeko Himalayan zehar egiten ari garen bidaiaren zatitxo bat baino ez izanik.

Kanpamenduan sekulako mugimendua eta giroa dago. Sheshnag eta Astanmag ibaien elkargunean kokatutako kanpamendu hau, kale luze bat baino ez da, sendagilean, militarren, gobernuaren postuez eta, batez ere, dende inguratuta. Ibilaldirako behar den guztia saltzen da hemen. *Yatriei* ongi etorria egiten dieten kartelak ikus daitezke nonahi. Shivari eskainitakoak ere. Eta bozgorailuetatik Shivaren omenezko kantuak ere atsedean gabe entzun daitezke. Baina guztia aldi baterako da, *yatraren* garaitik kanpo hemen lauzpabost etxe baino ez baitira geratzen.

Kanpamendua zeharkatu eta mendi bidean sartu aurretik militarren kontrol berri batek gelditu gaitu. Oraingoan pasaporteak eskatu dizkigute eta galdera ugari egin ere. Denbora pasa ari direla hartu diegu susmoa, baina badaezpada guk guztiari erantzun diegu. Azkenik, ibilaldiari ekin orduko goizeko bederatzita eta erdiak dira.

Bidea Sheshnag ibaiaren ondoan doa ipar mendebalderantz. Laua da eta gure inguruko *yatriak* bezala pozik goaz kontu kontari. Baina kilometro baten buruan guztion irribarrea desagertu da. Urlaster baten ondoan, pinu arteko pasabide estu eta motz baten ondoren, bideak iparralderantz 450 metroko desnibela duen aldaparantz jotzen du. Erritmoa jaistean, pilatutako *yatri* multzoa are handiagoa da. Guztiok goaz poliki. Mota guztietako *yatriak* ikus daitezke hemen. Ikusgarrienak *shaduak* dira, laranja, gorri edo zuri koloreko oihal batekin egindako gona eta kamiseta bat baino ez daramate soinean. Ilea nahasia eta begirada galdua dutela, oinutsik dabilta harri artean, baita batzuetan elur artean ere. Shivaren tridentea esku batean eta albuoak egiteko ur pixarra bestean. Astiro baina zuhur doaz, Shivari abestuz: *Oh Nama Shiva!, Jai Shiva shankar!, Bom bom bhole!...* Askok altueraren gaitzak jota botaka dabilta eten gabe. Baina ez dira kikiltzen, atsedean pixka bat hartu, porrutxo bat erre eta aurrera! Diotenez, bitzta emankorra izan ondoren (askok familia osatutakoak dira), hiritar izateari uko egin diote bizimodu espiritualari ekinez. Leku sakratuetara erromes modura abiatzen dira eta hiritarrek emandako limosnari esker bizi dira. Barne espiritua horren sendoa dutenez, mendietako hotzetik babestuta daudela uste dute. Sinismen honen ondorioz, *shadu* bat baino gehiago hil da hotzez edo elurra argitasunagatik itsu geratu. Ez da txantxa, 1996ko abuztuan, elur ekaitz gogor baten ondorioz, 250 bat *yatri* hotzak eta nekeak jota hil ziren. Horrengatik, ibilaldi oso arrisksua da hau, batez ere *shaduentzat*. Bestetik, klase ertaineko *yatriak*,



■ Pissu lepoari ekin aurretik, Sheshnag ibaiaren ondoan doa bidea



■ Yatri asko ez daude garaiera hauetako lurraldeetan ibiltzera ohituk. Horexegatik kaxmirtar artzainen zaldi gainean egiten dute yatra



■ Yatri aberatsenak zaldi gainean baino hobeto doaz palankinean, lau portadore kaxmirtarren bizkarraren gainean

janzkera eta oinetako dotore eta egokiagoak daramatzate. Lodikote batzuk ere badira, eta beste batzuk ibiltzeko ohiturarik ez dutenez, zaldi gainean doaz, zaldiaren jabe kaxmirtarren laguntzaz. Aberatsak, ordea, palankinean eserita doaz, 4 edo 5 kaxmirtar zamaketariren bizkarrean. Erromesaldia, lurralde menditsu honetako kaxmirtar artzaintzat diru sarrera garrantzitsua da. Honela, jendetza honen artean ibiliz, erromesaldiaren parte bihurtu gara, *yatri* hain zuzen. Kanpotar bakarrak izateagatik, uneoro agurtzen gaituzte eta askok argazkiak egiten dituzte gurekin oroigarri gisa.

Ia bi ordu behar izan dugu Pissu (3390 m) lepora heltzeko. Aldiz, gaurko ibilaldiaren 3 km baino ez ditugu egin. Goian ikusmira zabala da. Mendebalderantz atzean utzitako Lidder ibaiaren haran osoa eta ekialderantz Sheshnag erreka eta kanpamenduraino garamatzen ibarra. Lepoan giroa ere aparta da. Alde batetik kaxmirtar zaldi gidarien kanpadendak daude, tea eta urezko pipa eskaintzen digutelariki. Bestetik, Amarnath *yatraren* antolakuntzak jasotako karpa gorri handia. Barruan, Shivaren omenez irudi handi bat eta musika jo eta ke. Aldapa gogorraren ondoren indarrak berritzeko, janaria ere eskaintzen da, dena doan. Eta gainera aukera anitza da. Dozena bat lapiko desberdin daude eta banan-banan lapiko batetik bestera pasatu gara. Ez batak ez besteak ez gaitu erakarri. Tea, gailetak eta pastel gozo batzuk jatera baino ez gara ausartu. *Yatriek* eta bereziki *shaduek* karparen inguruan eguzkitan atsedean hartzen dute porruak erretzen, bideari ekin aurretik. Jai giroak blaitzen gaitu. Kaxmirko Himalayan baino, Euskal Herriko *Kilometroak* nahiz *ibilaldia* jaialdietako txosna batean gaudela dirudi.

Atsedendialdiaren ondoren aurrera egin dugu ipar ekialderantz, Sheshnag aintzirarako norabidean. Bidea zabala da, milaka *yatrien* pausuekin sortutakoa. Urtero, 400000 *yatrik* egiten dute ibilbide hau, ekainean hasi eta abuztuaren erdialdera arte. Eskuineko mendi magala 3800 eta 4000 metrotaraino altxatzen da, haitzek, belarrak eta ur jauzi txikiez osatua. Ezker aldean Sheshnag ibaia doa, gehienetan zuri kolorekoa, urlasterren ondorioz, leku askotan ibai bidea oso estua egiten baita. Gaineko mendilerroa ere 4000 metrokoa da gutxi gorabehera. Bost kilometroren buruan Zojibal atsedendlekura heldu gara. Hau ere aurrekoaren antzekoa da eta hemen ere ez gara gailetak baino jatera ausartzen, nahiz sabelak gehiago eskatu. Zeruian lainoak areagotzen ari dira eta mendi artean sartzen. Ibaia belardi zabal eta lau honetan astiroago doa, urrutiago ikusten diren glaziarren ur korronteekin elikatzen den bitartean. Paisaia ikusgarria benetan. Hemendik aurrera bideak aldapan gora egiten du, arroila estu batean zehar pare bat kilometroz. Ondoren, Sheshnag aintzira (3580 m) ikus dezakegu, eta honen gainean kanpamendua ere bai. Uraren kolore zuri-berdexkak, aintzira inguruko glaziarretatik elikatzen dela adierazten digu. Behin, Vishnu jainkoa ur hauetatik atera zela diote. Kanpamendura heltzeko pare bat kilometro baino ez zaigu geratzen. Aintziraren iparraldeko urertzetik altuera hartzen goaz kanpamenduren 3720 metrotaraino. Hegoaldea 4200 metroko bi tontorrek mugatzen dute. Tontorren ekialdean ibar bat ezkututzen dela antzeman daiteke, bertatik ur

korronte aintz sartzen direlako aintzirara. Kanpamendura hurbildu ahala, ibar ezkutua gure begietara agertzen den heinean, sekulako glaziarra antzeman daiteke laino artean. Kanpamenduaren kokalekua paregabea dela dirudi. Tamalez, hodeiek zeru guztia estali dute eta lainoa beherantz dator. Arratsaldeko 15:30 inguru heldu gara, hamahiru kmko ibilaldia egin ondoren. Orain kanpamenduko abentura dator.

Kanpamendua militarrek kontrolatzen dute. Arantzadun alanbreaz inguratuta, kanadar itxurako ehun bat kanpadenda daude barruan. Aldiz, kanpamenduaren kanpoaldean *yatri* aberatsagoentzat obra-txabolak jaso dituzte, komuna duen gela handi banakoak. Ez legoke gaizki, gure aurretik egon direnek komun ontzitik kanpo kaka egin izan ez balute. Pentsa ze nazka! Guk kanpadendak aldean ekarri ditugunez, gureak jartzea posible ote den galdetzeraz joan dira Mikel eta Iratxe. Sarrerako soldaduek galdera ugari egiten hasi zaizkie: zergatik, zertarako... eta beste hainbat tontokeria. Halako batean, kanpamenduko buruari baimena eskatu behar zaiola esan diete. Baina kanpamendu barruan sartzeko, bizkarreko motxilak goitik behera arakatu dizkiete, baita bertan daramaten guztiaz galdera inozo asko egin ere. Mikel eta Iratxeren pazientzia agortzeko zorian. Halako batean, kanpamenduko arduradunetako batek, kanpamenduaren arantzadun alanbrearen ondoan txoko zikin batean akanpatzeko baimena eman die. Eskaintza ez onartzea erabaki dugu, ez lekua ez zaigulako gustatu, kanpamendu barrura motxila handiekin sartzean jasan beharko dugun erregistroagatik baizik. Hortaz obra-txabolan lo egingo dugu. Gainera, giltza dutenez, gure gauzak seguruago egongo direla uste dugu.

Motxilak utzi, arropa jantzi eta kanpamenduaren kanpoko bi *txosnetara* hurbildu gara zerbait bazkaltzera. Afaria prestatzen ari direnez, tea eta gaileta batzuk eskaini dizkigute. Baita ogia ere, baina gure gusturako pikanteegia da. *Txosnak shaduez* beteta daude. Gehienak lurtean eserita, bata bestearekin hizketan eta porrua konpartitzen. Beste batzuk atsedena hartzen, begirada galdua, yoga egiten baleude bezala. *Shadu* taldetxo baten lagun egin gara. Batek ingelesa ondo menperatzen du, Rishikesh herrian yoga irakaslea baita. Taldeko beste *shadu* batek mimikaz hitz egiten digu. Aurrekoak dioskunez, zortzi urte daramatza hitz bat ere esan gabe, hitz egitean erabiltzen dugun energia aurrezteko. Xelebrekeria galanta iruditu zaigu, mimikaz egin behar duen ahalegina ikusita, energia gehiago kontsumitzen duela uste baitugu. Kontu kontari eman dugu arratsaldea, afalordura arte. Afaltzekoa arropa eta dilistik. Gure sabelerako menu seguru dirudien arren, handik ordubetara uzker ustelak botatzen hasi gara eta gauez Mikel eta Asier kristoren sabeleko minaz eta beherakoaz egon dira, behin baino gehiagotan komun zikin horretan sartu beharrean.



■ Mahagunas lepoan

3. eguna: Sheshnag - Mahagunas - Panchtarni

ZERU erabat urdinez esnatu gara. Goizaldeko lehen ikuspegia glaziarrean gailentzen diren hiru mendi tontor dira: Vishnu, Shiva eta Brahma, hirurak 5000 metro baino garaiagoak. Goiza hotza da. Motxilak prestatu eta zaldizainari eman dizkiogu. Milak eta Iratxek txosnan gailera batzuk eta tea gosaldutute. Mikelek eta Asierrek, aldiz, ura eta *sueroral*. Beherakoak ahuldu egin ote gaituen beldur gara, gaurko eguna gogorrena baita: bakarrik hamabi km diren arren, 4270 metrotarra dagoen Mahagunas lepoa gainditu behar dugu.

Kanpamenduan mugimendu handia dabil. *Yatriak* kanpadendak utzi eta bideari ekiten hasiak dira, batzuk bakarrik, beste batzuk talde txikietan. *Shadu* guztiak oinez doaz. Gainontzekoen artean batzuk zaldiz eta bikote bat palankin baten gainean. Guk geuk ere bideari ekin diogu, oraingoan ipar ekialderantz. Gorantz goazen arren, atzera begira goaz behin eta berriz, kanpamendua, aintzira, glaziarra eta hiru tontorrek osatzen duten paisaia miresgarriari begira. Ibiltzen hasi eta berehala, gure aurretik atera diren *yatri* taldeak harrapatzen hasi gara. Badirudi ez daudela ibiltzera oso ohituak, irten eta laster atsedena hartzen baitute. Hauen artean, atzo lagun egin genuen *shadu* gazte batekin ere topo egin dugu. Dar-dar batean doa gizagaixoa. Oinutsik, galtza luzerik gabe, manta bat baino ez

darama soinean hotzetik babesteko. Beharrezkoa ez den arren, gure zaldizaina gurekin batera dator gidaritza lanak egin nahian.

4000 metrotarra heltzean, bideak iparraldeko noranzkoa hartzen du. Aurrean mendi tontor handi eta ikusgarria daukagu, batik batik goizaldeko eguzkiaren posizioarengatik zeruaren kolorea ikusgarri polarizatzen delako. Ez dugu mendiaren izena ezagutzen, ezta gure zaldizainak ere. 4600 metrorekin mendilerro baten bukaera osatzen du Mahagunas lepoaren gainean. Mendilerroa lehendabizi ipar ekialderantz luzatzen da, ondoren ekialderantz eta geroago hegoalderantz, zirku bat osaturik. Gure eskuinaldean dago zirku eta belardi hezean ahuntz, ardi eta zaldi ugari ikus daitezke. Gure aurretik *yatriez* osatutako ilarak garbi erakusten du bidea nondik nora doan. *Yatri* asko Amarnath haizulotik bueltan datozen. Gehienak zaldi gainean. Ez gizonak bakarrik, emakumeak ere bai. Gehienak taldeka, baina bakarrik ere badatozen emakume batzuk.

Hiru bat kilometro gorago, 4100 metrotarra Wawbal atsedenelekua dago. Leku aproposa atsedene txiki bat hartu eta sabeldura dugunok geure eginbeharrak egiteko. Bertatik Mahagunas lepoa ikus dezakegu. Beste pare bat kilometro zuzenean iparralderantz 4270 metrotaraino.

Mahagunas lepoa soldaduek hartuta dago. Hogeita hamar bat lagunek, lepoaren alde bata eta bestea zaintzen dituzte. Beldurgarria nolabait ere, nahiz eta orain arteko bidean soldaduak ikustera ohitzen hasita gauden. *Yatra* osoa erabat zainduta dago: gutxi gorabehera 200 metroka bi soldaduk osatutako zaintza postuak daude, batetik bestea ikusten dutelarik. Arrazoiak begi-bistakoa da. Erromesaldia hinduista da. Aldiz lurraldea, Kaxmir, Indiako gobernuaren agindupean indarrez dagoen herrialde musulmana. *Yatraren* antolatzaileak eta Indiako gobernuaren gerrillari independentistek *yatriei* eraso egingo dieten beldur dira, 2000. urtean gertatu zen bezala. Independentista batzuen ahotan, *yatra* probokazioa da. Aldiz, antzinako liburuaren arabera, Amarnath *yatra* musulmanak baino lehenagoko ohitura da. Horrela jasotzen du XII. mendeko Kaxmirko *Kalhana* izena zuen *brahmanak*, sanskrito idatzitako *Rajatarangini* liburuan. Liburu honek Kaxmirko errege eta agintarien historia jasotzen du, Kristo aurreko garaietatik ordura arte. Musulmanak XIV. mendean sartu ziren Kaxmirren.

Gu geu ere tentsio honen biktima izan gara. Mahagunas lepoan atsedene hartzen ari ginela, Mikel, sabeldurak jota, libratzeko leku bila urruntzen hasi denean, soldaduak berehala asaldatu dira eta taldetxo bat bere atzetik korrika atera da. Besteok, azalpenik emateko denborarik ere ez dugu izan.


Iparalderantz Mahagunas lepotik behera egin dugu sekulako ikuspegia aurrez aurre dugula. Bata bestearen atzean pilatzen diren mendi tontor eta glaziarrei begira goazela, ia konturatu gabe Phosi Pathri (4000 m) kanpamendura iritsi gara. Indarrak berritzeko lekua da, Pissu eta Zojibalen antzekoak, baina militarren presentzia



■ Vishnu, Shiva eta Brahma menditontorren ikuspegia goizaldean.



■ Mahagunas leporako aldapa luzea denez, yatriek atsedena behar dute



■ Kanpamenduetan janari eskaintza handia baina ezhoikoa da

handiagoa duena. Bertan sartu aurretik, motxilak zaldi gainetik jaitzarazi dizkigute eta goitik behera arakatu. Zergatik ote dira horren zorrotzak gure ekipajea arakatzeko? Atzerritarrek garelako? Ala gure motxilen tamainagatik? Egia da gainontzeko *yatrik* ekipaje gutxi daramatela, *shaduek* batez ere. Gure aurretik pasatu den *shadu* batek, bere poltsan boleiboleko baloiaren tamainako haxix zatia baino ez darama, eta lasai asko erakutsi die soldaduei. Hauek harridura keinurik gabe aurrera jarraitzen utzi diote. Gure motxilekin oso zorrotzak diren arren, jarrera atsegina dute gurekiko: gehienetan irribarretsu eta mintzati. Gurekin argazkiak ateratzea ere gustuko dute. Bitxikeria gisa ikusten gaituzte, atzerritar gutxi baitabil *yatra* honetan. Oraingo honetan, kapitainak bere kanpadendan kafea, gailetak eta txokolataa jatera gonbidatu gaitu.

Gaurko etapa bukatzeko zazpi kmko bidea geratzen zaigu, guztia goitik behera, Panchtarni kanpamenduraino (3657 m). Alde batera eta bestera inguratzen gaituzten orma erraldoiek, iparralderantz luzatzen den ibar glaziarra eratzen dute. Garaiera honetan haitza eta harria dira nagusi. Beherago, bideak antzinako glaziarraren morrena gris eta harritsu zeharkatzen du, belarrak gailendutako lautada agertu aurretik. Berdegune honen arazoia bost glaziar errekek osatutako Sind izeneko ur korronte zabala da. Lautadaren beste aldean, kilometro batera, Bhairav mendiaren (4700m) horma bertikalaren azpian, Panchtarni kanpamendua dakusagu. Hormak 1000 metroko desnibela izanik, kanpamenduen tamaina txiki-txikiak zirrara sortarazten du.

Kanpamendu honetan *yatri* ugari biltzen dira. Santutegira goazenak eta bueltan datozenak. Segurtasun arauak aurrekoetan baino zorrotzagoak direnez, erregistro berri bat pairatu behar izan dugu. Are gehiago, gure zaldizaina eta gainontzeko *yatriak* laguntzen datozen kaxmirtar abeltzainei ez diete barrura sartzen utzi. Gaurkoan, zalantzarik gabe, obra-txapola aukeratu dugu logela gisa, gainera datorkigun ekaitzaren itxura beltza ikusita babesleku egokiena delako. Afalondoan, *yatri* guztiekin batera Shivari kantatu diogu.

goiz dabilzan bakarrek. Goiz hotz honetan, *shaduek* ez ezik, gainontzeko *yatri* gehienak ere zaldia alokatzen ari dira ibilaldiaren azken txanpa egiteko. *Yatri* asko ez dago ohituta garaiera hauetako mendietan ibiltzera. Ibilaldia oinez hasi arren, hirugarren egunetik aurrera laguntza behar izaten dute. Inguruko mendien magaletan bizi diren kaxmirtar artzainek ere badakite eta, horregatik goizean goiz Panchtarni kanpamenduen ingurura hurbiltzen dira *ghora*, *ghora!* ('zaldiak, zaldiak') oihukatuz. Gerrillari afganiarren itxura dute eta, mendian bizi den edonork bezala, gogor eta trebe itxura dute. Gizon hauen jatorri indoarioaren zalantzarik ez dago. Izan ere Erdialdeko Asiatic oso hurbil gaude.

Ipar mendebalderantz Sind ibaiari jarraikiz, Panchtarni lautada ibar mehar bihurtzen da. Eskuma aldeko ibaiertzetik hasita, bideak magalean gora egiten du sigi-sagan, berehala ia 4000 metroko garaiera hartuz. Hemendik, Sind ibar estua urrutira luzatzen dela dakusagu. Aurkako hegalean artzainen kanpadendak eta ardi taldeak ikus daitezke. Gure ondoan doazen *shaduek* nekez igotzen dute aldapa, eta behin eta berriz atsedean hartzera gelditu behar izaten dute. Arreta eman diogu adineko senar-emazte bikote bati. Makila handi bat lagun dutela, oinetakorik gabe, debozioaren indarrari esker aurrera egiten dute astiro. Ahalegin ikaragarri honen lekuko gabela, *yatri* arras dirudunak haitzulora daramaten helikopteroak gure gainetik hegan pasatzen dira behin eta berriz. Batzuek egunak behar dituzte. Ostera beste batzuek minutuak.

Hiru bat kilometro egin ondoren, ekialderantz Amravati ibarra irekitzen da, hau ere oso meharra. Sarrera ikusgarria da, 4000 metrotera egonik, ibarraren goialdetik sartu gara, erreka 400 metro beherago dugularik. Aurkako hegalean Baitairako bidea horma bertikalaren erdian argi ikus daiteke, balkoi baten antzera. Zirrara sortzen digu honek guztiak. Altituderik galdu gabe aurrera egin ahala, Amravati errekaostoen gaineko elururrekin bat egin dugu. Ez da batere ikusgarria ordea, elurra lur beltzarekin nahastuta baitago. Ibarra horren estua denez, eguzkiaren izpiak ozta-ozta sartzen dira. Baina momentu hau hunkigarria da, ibarrean barrena pare bat kmra, Amarnath haitzulua ikus baitaiteke lehen aldiz. Kanpadenda batzuk zeharkatu eta azken kilometroak glaziar zahar baten morrena gainean egin ditugu. Haitzuloaren ondoko metroetan kanpamendu handi bat osatu da. Kanpadenda gehienak oroigarriak eta Shivarentzako eskaintzak saltzen dituzten dendak dira. Guk ere bat erosi eta aurrera egin dugu, militarren hezi batekin topo egin arte. Motxilak eta argazki kamara hesitik kanpo uzteko agindu digu soldaduak. Baina ez gara argazki kamara zaintza gabe uzten ausartzen. Behin eta berriz eskatu arren, soldaduek amore ematen ez duenez, haitzulua txandaka bisitatzeko erabakia hartzen ari gara, beste soldadu batek kapitainaren bulegora eraman gaitu. Ez da kapitaina, Amarnath osoko kontingente militarren jenerala baizik. Gu ezagutu nahi gaitu, aurrean Amarnath bisitatzera gatozen atzerritar bakarrek baikara. Gure presentzia ohorea dela dirudi eta kafea hartzera gonbidatu ondoren, eskolta berezia jarri digu haitzuloaren

4. eguna: Panchtarni - Armanath - Baltai

GURE maparen arabera, Amarnath haitzulua (4050 m) gainean dugun Bhairav mendiaren beste aldean aurkitzen da. Hortaz, mendia inguratu beharko dugu helmugara heltzeko. Haitzulua sei kilometrotara baino ez dagoen arren, gure asmoa Baltai herriraino beste hamalau km egitea denez, goizeko 6etan esnatu gara. Baina ez gara

barruko santutegira sartzeko eta, noski, argazkiak ateratzeko baimen berezia eman digu. Pozez zorutzen goaz.

Haitzuloak kareharrizko aho erraldoia dirudi hormaren erdian. Bertara heltzeko hormigoizko eskailera beldurgarria izo behar dugu. *Yatraren* garairik jendetsuenean, milaka *yatri* pilatu ohi dira eskailera honetan aurrera egin ezinik. Inoiz itota hildakoak izan dira eta behin baino gehiagotan jende oldeak sortu izan dira ondorio larriekin. Abuztuaren 2an gaude eta *yatra* bukatzeaz dagoenez, *yatri* kopurua asko murriztu da. Eskaileran gora goazela, lau kaxmirtarren bizkarrean palankinean eserita datozen *yatri*ei arreta eman diegu. Helikopteroz heltzen diren *yatri* dirudunak, heliportua eta haitzuloaren arteko 50 metroak ere ez dituzte oinez egiten!

Haitzuloan ibiltzeko oinetakoak erantzi behar izan ditugu. Zorua erabat hotza dago. Sarreran *yatri*ek zintzilik dauden kanpaiei jotzeko ohitura dute. Honek giro zeremoniatsuaz betetzen du lekua. Erdiguneko aldare nagusian loreak, zinta gorriak eta intsentsua dira nagusi. Eta, noski, Shiva eta Parvatiren irudia. Apaiz batek ongietorria egin digu. Sandalo gorriaz marka bat egin digu bekokian, ondoren zinta gorria jarri buru inguruan, baita hari gorria eskumuturra inguratzen ere. Azkenik otoitz egin du eta guk haren hitzak errepikatu ditugu, zer zioten ulertu gabe. Aldi berean urduri, pozik eta bereziki eskerdun sentitzen gara. Aldarearen gainean burdin hesi luze batek babesten du izotz estalagmita. Tamalez, estalagmitarik ez dago. Duela aste pare bat urtu egin zen erabat. Gure soldadu gidariek esaten dutenez, azkeneko urteetan ohikoa baino lehenago ari da urtzen. Kontsolagarri gisa, aurtengo estalagmitaren argazki erraldoiak jarri dituzte aldamentean. *Yatri*ek estalagmita hor balego bezala gurtzen dute, estalagmitaren lekuko hezetasuna ere, bedeinkatua baita. Beraiei so, berotegi efektuak milaka urteko ohitura hau desagerraraziko ote duen galdetzen diogu geure buruari...

Leku honetan bitxikeria gu garenez, haitzuloan dauden *yatri* eta soldaduek gurekin argazkiak atera nahi dituzte. Ondorioz, haitzuloan denbora luze eman dugu. Ondoren bueltako bideari ekin diogu, oraindik hamalau kmko bidea baitugu aurretik. Haitzuloaren azpiko kanpamenduko txosna

batean arroz pixka bat jan (Asier eta Mikel oraindik barau) eta Amravati ibarraren iparraldeko (eskuineko) bidea hartu dugu. Altuera berean mantentzen garen arren, Amravati errekek azkar galtzen du altuera. Ondorioz minutu gutxitan kristoren amildegia dugu ezkerretara. Gainera, erreken beste aldeko hegalarren gainean Bhairav (4700 m) tontorrak ingurunea bertikalago egiten du. Bidea oso estua denez, aurrera begira adi ibili behar dugu. Baina behin eta berriro gelditu eta atzera begiratzen dugu haitzuloa azkenekoz ikusteko. Gainontzeko *yatri*ak bezala, bekokiko sandalo gorriarekin, pozik eta harro goaz geure helburua lortu ahal izan dugulako. Sind ibarrean sartzean iparraldera hartu dugu. Hemen ere, bidearen altuerari esker txorien ikuspegiak gozaten goaz. Atzean Panchtarni kanpamendua dakusagu, eta honen gainean sekulako glaziarra (5444 m), orain arte ezkutan zegoena. Ibarraren azpian Sind erreken ur ertzean militarren kanpamendua ere ikus daiteke. Hiru bat kilometro egin ditugu Sangari atsedenekuraino ia altuerarik galdu gabe. Hemendik aurrera, bideak ibaiaren eskuineko magalean jarraitzen duen arren, aldapan behera goaz, 3000 metrotara erreken ondora jaitsi arte. Paisaia pinuak agertu dira eta erreken ondoan kaxmirtar artzainen txabolak ikus daitezke. *Yatri* gutxi batzuk izan ezik, gehienak gu bezala beheraka datoz. Azkeneko bi kilometroak, Dmail atsedenekutik, lauan egin ditugu erreken bihurtze segika, ibar zabal bat agertu zaigun arte. Geure aurrean Baltai kanpamendu erraldoia dakusagu pozez.

Zeharkatu dugun Himalayako zatitxo hau edertasun handiko parajea izan da, nahiz eta Himalayan leku ikusgarriagoak badauden. Aldiz, antzinako kondaira berresteko gizon-emakumeek urtero burutzen duten erromesaldiak lekua miresgarri bihurtzen du. Behin eta berriz, Shraavan garaian milaka jarraitzailek bidea elur artetik berreskuratzen dute eta, ondoren, hotzaren eta isiltasunaren babesean geratzen da hurrengo urtera arte.

Ilunabarrean, abentura honi agur esaten ari garela, iparraldeko mendi magal erraldoi eta bertikalean sigi-sagan doan bideari so, geure hurrengo abentura datorkigu burura, Ladakheko Zanskar ibarrera joateko jarraitu beharko dugun bidea delako. Bertan hamar bat egunez, Himalaya mendikate ikaragarri honen beste zatitxo bat zeharkatzeko asmoa dugu. Baina hori beste abentura bat da. □

■ Amarnath haitzuloa

KAXMIR ARRISKUTSUA?

KAXMIR herrialdea Himalaya eta Karakorum mendikateen artean kokatutako lurraldea da. India, Pakistan eta Txinarekin egiten du muga. Hiru potentzia hauek, eta bereziki Indiako eta Pakistango gobernuek eskualdea berenganatu nahi dutenez, mutur joka ibili dira, britainiarrek beren inperioa (India eta Pakistan) utzi zutenetik. Gaur egun, herrialdea bi potentzia hauen artean bananduta aurkitzen da. Pakistanek mendebaldea kontrolatzen du, bi probintzian zatitua: Azad Kaxmir eta Iparraldeko eskualdea (Baltistan ingurua). India ekialdeaz jabetu zen, Jammu eta Kaxmir probintzia osaturik (Ladakh ere probintzia honen barruan da). Potentzia hauek beren mugak hedatzeko duten nahi ez da oraindik ase eta, horren ondorioz, bi lurraldeen arteko mugan tentsioak nabarmen dira. Honi kaxmirtar talde independentista armatuen ekintza gehitzen bazaio, lekua ezegonkorra dela erraz ondoriozta daiteke. Horregatik bertatik datozkigun berriak orokorrean ez dira onak izaten. Ezin dugu ukatu tentsio handiko ingurunea denik, soldaduen presentzia nabariak erakutsi zigun bezala. Srinagar hiria kaleen artean soldaduek edonon gerrarako prest ikus daitezke: hareazko zakuak, sarea gainetik, arantzadun alanbrea... Horregatik hara joan aurretik bertako egoera aztertzea gomendatzen dugu. Baina horrek ez du esan nahi, kale artean uneoro tiroka bizi direnik. Gure egonaldian bizimodu normala antzeman genuen, bai Srinagarren, bai Pahalgam ibarrean. Srinagarko aireportuan ere ez genuen aparteko segurtasun neurririk sumatu.

Aldiz, gure *yatra* bukatu ondoren eta Zansarko Padum herrian geundela, Srinagarren Amarnatheko *yatraren* aurka manifestazioak areagotzen ari zirela aditu genuen. Maiatzean (2008) Indiako gobernu zentralak eta Jammu eta Kaxmir probintziako gobernuek *yatraren* antolatzaileei (Shri Amarnathji Shrine Board) ehun akreko lurraldea ematea adostu zuten, *yatrientzat* kanpamendu eta logistika guneak eratzeko. Neurri honen aurka Kaxmirren gertaturiko altxamenduaren aurrean, gobernuek atzera egin zuen. Orduan, Jammuko hinduistak altxatu ziren Kaxmirren aurka. Bertara heltzeko errepide bakarra itxi zuten Kaxmir eskualdea ekonomikoki itotzeko asmoarekin. Abuztuaren bukaeran, Kaxmirko egoera jasanezina zela eta, hauek berriz matxinatu ziren. Azkenik, irailaren erdialdean Kaxmir eta Jammuko gobernuaren eta matxinatuen arteko adostasunak tentsioa baretu egin zuen. Hitzarmenaren arabera, *yatraren* antolatzaileek, jabetza ez, baina berrogei akreko lurraldea erabiltzeko baimena dute *yatra* garaian.

AMARNATHEN KONDAIRA

SHIVA, hinduismoaren jainkorik ezagunena da. Trinitate sakratuaren partaide da, Bharam sortzailea eta Vishnu babeslearekin batera. Bere ezaugarri kontraesanekoak direla eta, Shiva jainkoa konplexua da. Suntsitzailea da eta aldi berean birsortzailea. Aszeta bezala bizi da baina sentsualitatearen sinbolo ere bada. Arimak babesten ditu, baina aldi berean mendekatzaile sutsua da. Gorputza eta ilea errautsez estalia irudikatu ohi dute, unibertsoaren izaera transzendentala adierazteko. Rasta moduko ile nahasiek energia mentala, fisikoa eta espiritualetan bateratzea adierazten dute. Hiru begi ditu: eskuinekoak eguzkia adierazten du, ezkerrekoak ilargia eta erdikoak sua. Azken hau irekiz gero, erabateko txikizia eragin dezake. Lepoa inguratzen duen sugeak energia kosmikoa adierazten du. Esku batean tridentea darama beti, bere hiru botereen adierazle (gogoia, ekintza eta jakintza), eta Nandi (indarra eta ezjakitea) zezenaren gainean ibili ohi da.

Kondairaren arabera, Shiva jainkoaren emazteak, Maa Parvatik, hilezkortasunaren sekretua kontatzeko eskatu zion senarrari. Baina Shiva luzamendutan ibili zen behin eta berriz. Parvati oso setatsua zenez, Shiva amore eman eta sekretua kontatzeko, beste inork entzun ez zezan, leku bakarti batera eramatea erabaki zuen. Amarnath haitzuloa aukeratu zuen. Horretarako, bere bufaloa, Nandi, Pahalgamen utzi zuen. Geroago, Chandanwarin, bere adats nahasietatik ilargia askatu eta bertan utzi zuen.

Sheshnag aintziraren ur ertzean utzi zituen sugeak. Mahagunas lepoan bere semea Ganesha utzi zuen. Panchtarnin, bizidun egiten zuten bost elementuak utzi zituen (lurra, ura, airea, sua eta zerua). Haitzuloaren barruan, Kalagni dragoia sortu zuen, inguruko espezie bizidun oro erre eta hiltzeko. Ondoren hilezkortasunaren sekretua kontatu zion Parvatiri. Baina, aurretik hildako behi baten azpian arautza bat bizirik mantendu zenez, handik jaio ziren bi usoak sekretua entzun eta hilezkor bihurtu ziren. Diotenez, gaur egun oraindik uso bikotea ikus daiteke haitzulorako bidean.



■ Yatria errezoan Amarnathen



■ Aldarea Amarnath haitzuloan

HIMALAYAKO ERROMESBIDEAK

ERROMESALDIA yoga eta debozio ariketa da, jainkoak bezain zaharra. Erromesak edozein arrazoiengatik has dezake ibilaldi espirituala, adibidez erregu batengatik, familia izateko, gaixotasun batetik osatzeko, bekatu bat arazteko eta abar. Baina normalean fededunaren bizimoduaren parte da eta gutxienez urtean behin egiten du erromesaldia. Hortaz, arrazoia edozein izanda ere, ariketa fisikoak lagunduta bateriak kargatua bueltatzen da. Hinduistek oso erlazio berezia eta pertsonala dute beren jainkoekin. Erromesaldiak erlazio hori sendotu egiten du eta jainkoengandik hurbilago sentiarazten ditu. Ehunka tenplu daude Himalayako mendietan eta ibarretan, eta guztiak dira nolabait erromesgune. Hona hemen erromesaldi garrantzitsu batzuk.

Kailash (6714 m). Tibeteko Himalayan kokatua Asiako mendirik sakratuena da. Hinduistek, budistek, jainistek eta sijek gurtzen dute, mendiari bira emanaz. Kailash menditik hurbil dagoen 88 kmko perimetroa duen Manasarovar aintzirari ere bira osoa eman ohi diote.

Vaishno Devi (1585 m). Jammu probintzian kokaturik, haitzulo sakratura etorri gero, hinduistek dituzten lau helburu espiritualak modu zuzen eta baketsuan lor ditzakete. 14 kmko ibilaldia da.

Machail Yatra (1800 m). Jammu probintzian kokaturik, erromesek bi eguneko ibilaldia egiten dute Bhaderwah herritik Machail herrira, Chandi jainkosa gurtzeko. Abuztuaren 18aren inguruan ospatzen da.

Char Dham. Uttaranchal probintzian kokatzen diren lau erromesgune garrantzitsuak bisitatzen ditu: Gangotri, Yamunori, Kedarnah eta Badrinath.

Gangotri (3140 m). Ganges (Ganga) ibaia ama jainkoa da hinduistentzat. Urtero milaka erromes joaten dira, Gomukh glaziarren oinetan ibaiaren iturburua gurtzera, hiru eguneko ibilaldian.

Yanumori (3200 m). Santutegi honen izenak Yamuna ibaiaren iturburua adierazten du. Yamuna jainkosa Eguzkiaren eta Heriotzaren alaba da. Diotenez, haren uretan bainatuz gero, heriotza mingarria ekidin daiteke. Hamahiru kmko ibilaldia da, baina inguruak aztertuz luza daiteke.

Kedarnath (3700 m). Shiva jainkoaren omenez jasotako tenpluraino hamalau kmko ibilaldia da. Tenpluan zezen baten konkorak Shivaren zakila edo emankortasuna gurtzen dute.

Badrinath (3100 m). Vishnu jainkoari eskainitako tenplurik garrantzitsuena da. Tamalez, gaur egun harainoko bidea erabat asfaltatua dago.

Kullu ibarra (1220 m). Himachal Pradesh probintzian kokatzen da eta tenplu asko daude. Ibilaldiak egiteko aukerak ere bai.

Muktinath (3710 m). Nepalgo Mustang probintzian kokaturik, hinduisten eta budisten erromeslekua da. Lehengoek Vishnu jainkoa gurtzen dute eta bigarrenek Guru Rimpoche, hots Nyingma eskolaren sortzailea. Jhomsom herritik 7-8 orduko ibilaldian hel daiteke. Zazpi edo zortzi eguneko ibilaldi luzea ere egin daiteke Pokharatik hasi eta Kali-Gandaki ibarra zeharkatuz.



■ Sheshang erreka glaziarretatik datozen erreka ugarik elikatzen dute

■ Sind
ibaretiko
ikuspegia




IBILALDIAN ZEHAR JASOTAKO KOORDENATU GEOGRAFIKOAK:

Ibilaldian zehar GPS batekin koordenatu geografikoak jaso genituen. Google Earth planetan ikuskatzailer batean datu hauek sartuz gero, zehatz-mehatz ikus daitezke non ibili ginen.

Lekua	Altuera	Longitueda	Latitueda	Distantzia
Pahalgam	2.130 m	+34° 00' 43.55" E	+75° 19' 09.03" N	0 km
Baisarn	2.420 m	+34° 00' 12.40" E	+75° 20' 05.85" N	5 km
Dhabyan	2.420 m	+33° 59' 38.01" E	+75° 20' 07.70" N	7,5 km
Pahalgam	2.130 m	+34° 00' 43.55" E	+75° 19' 09.03" N	13 km

Lekua	Altuera	Longitueda	Latitueda	Distantzia
Pahalgam	2.130 m	+34° 00' 43.55" E	+75° 19' 09.03" N	0 km
Chandanwari	2.840 m	+34° 04' 46.46" E	+75° 25' 06.40" N	16 km
Pissu	3.370 m	+34° 05' 03.25" E	+75° 25' 53.12" N	19 km
Zojibal	3.320 m	+34° 05' 12.78" E	+75° 27' 14.88" N	24 km
Sheshnag	3.740 m	+34° 06' 01.05" E	+75° 30' 22.63" N	29 km
Warbal	4.080 m	+34° 07' 09.10" E	+75° 30' 34.37" N	32 km
Mahagunas	4.220 m	+34° 07' 33.02" E	+75° 30' 07.96" N	34 km
Poshi Pathri	4.000 m	+34° 08' 14.07" E	+75° 29' 30.72" N	35 km
Panchtarni	3.600 m	+34° 11' 27.36" E	+75° 30' 02.24" N	42 km
Amravati ibarra	3.900 m	+34° 12' 16.30" E	+75° 29' 00.44" N	45 km
Amarnath	3.980 m	+34° 12' 59.73" E	+75° 30' 00.23" N	58 km
Sind ibarra	3.900 m	+34° 12' 41.72" E	+75° 28' 18.11" N	51 km
Baltai	2.860 m	+34° 15' 20.62" E	+75° 25' 07.93" N	62 km

IBILALDIAREN PERFLA



DATU PRAKTIKOAK:

NOLA JOAN: Hegazkina da New Delhitik Srinagarrera (850 km) joateko modurik azkarrena. Hegaldiak Jet Airways (<http://www.jetairways.com>) enpresarenak dira eta bileteak internetez erraz eros daitezke. Srinagarretik Pahalgamera (96 km) autobusez joan daitezke, baina autobusak ez du ordutegi zehatzik, bidaiari nahikoa dagoenean ateratzen baita. Taxia da modurik azkarrena. Taxi eta autobus geltokiak bata bestearen ondoan daude. Taxiaren prezioa arautua dagoenez, bulegoan erosten da bidaia. *Yatra* bukatu ondoren, Srinagar herrira bueltatzeko, Baltai herrian taxia hartu behar da, Sonarmarg herriraino (12 km) eta hemen Kargildik (Ladakh) datorren autobusa. Herritarrei galdetu noiz pasatzen den autobusa.

NOIZ JOAN: Amarnatheko *yatra* Shravan hilabetearen ospatzen da. Hinduisten ilargi egutegiaren bostgarren hilabetea da eta gure ekainabuztua tarteari dagokio. Gure Aste Santua bezala, urte batetik bestera aldatu egiten da. Batzuetan ekainaren erdialdean eta besteetan uztailaren hasieran hasten da eta, honen arabera, abuztuaren hasieran nahiz erdialdean bukatzen da. Garai horretatik kanpo ez dago erromesik. Garairik jendetsuena uztaila da. Ekainean oraindik elur ugari aurki daitezke.

NON JAN ETA LO EGIN: Srinagar hirian ostatu asko dago, nahiz eta turistentzat ostaturik erakargarrienak Dal aintzirako etxe flotanteak diren. XIX. mendean eraiki ziren, Kaxmirko maharajek britainiarrei lurra erosten ez zirelako uzten. Britainiarrek, enperadore mogolak bezala, uda garaia Kaxmirren igarotzea oso gustuko zuten, debekuan aurrean, aintziran itsasontziak eraiki zituzten etxebizitza gisa. Gaur egun turistentzako ostatu bihurtu dira, India osoko aberatsak ere gustuko baitute Kaxmir eskualdea, eta turismo honi esker bizi dira milaka kaxmirtar. Pahalgamen ere hotel eta ostatu txiki ugari daude. Ibilaldian Sheshnag eta Panchtarni kanpamenduetan bi aukera daude: kanadar itxurako kaxmir koloreko kanpadendak edota obra-txabolak. Lehendabizikoa askoz merkeagoa da, noski. Antolakuntzak kanpamenduetan eta atsedenekuetan janaria dohainik prestatzen du *yatri* guztientzat. Ibilaldi honetan ez dugu isiltasunik, lasaitasunik ezta bakardaderik aurkituko, erromes herrikoa, aktiboa eta zaratatsua baizik.

DOKUMENTAZIOA: Indiara bidaiatzeko bisa behar da. Madrildo Indiako enbaxadan egiten dute (91 309 88 70, www.indiavisados.com). Paperak eta dirua mezulari baten birtatez bidal daitezke, baita bisa jaso ere. Pasaportek ez du bere balioa galdu behar bidaiaren bukaera datatik hurrengo sei hilabetean.

OSASUN KONTUAK: Indian zehar bidaiatzeko hainbat gaixotasunen aurkako bakunak gomendatzen diren arren, Kaxmir ingururako ez dago derrigorrezko txertorik. Paludismo arriskurik ere ez dago, baina egokiena Atzerrirako Txertaketa Zentro batean galdetzea da. Hala ere, *yatran* janariarekin eta urarekin kontu handiz ibili behar da. Kanpamenduak orokorrean leku zikinak dira. Komunak badaude, baina horrenbeste jende dabilenez, oso zikinak dira. Sarritan, jarritako komunak behar adina ez direnez, erromes askok edozein lekutan egiten ditu bere egitekoak. Kanpamenduetan iturriak badaude, baina ura potabilizatu egin behar da.

MAPAK:

LEOMMAN MAPS: INDIAN HIMALAYA MAPS, Sheet 1, "Jammu & Kashmir. Srinagar, Kolohoi Glacier & Kishtwar area" Eskala 1:200000 Trekking ibilbideak eta topografiaren deskribapen zehatzugabea.

GEHIAGO JAKITEKO:

- SHRI AMARNATHJI SHIRNE BOARD. *yatrien* laguntzarako eta azpiegituren antolaketaarako erakundea. <http://www.shriamarnathjishrine.com>, www.amarnathyatra.org
- INDIAMIKE. India osoari buruzko indiarren foroa, Amarnath eta Kaxmir barne. <http://www.indiamike.com/>
- KASHMIR TIMES. Kaxmirko egunkaria. <http://kashmirtimes.com/>
- KASHMIR OBSERVER. Kaxmirko egunkaria. <http://www.kashmiroobserver.net/>

ESPEZIOZIOAN PARTE HARTUTAKOAK:

Mikel Barrioso, Iratxe Garay, Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal. Ibilaldia 2008.eko uztailaren 29 eta abuztuaren 2a bitartean egin genuen, Kaxmir eta Ladakh arteko bidaia luzeago baten barruan.